



KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2025eko ekaina - 261 zkia.



ANAIARTE BILTOKIA ETENGABE LANEAN • EUSKAL EZKONTZA
TXISTU-DANBOLIN HOTSAK GURE KALEETAN • RAFA URANGA: ZALETASUNA ABIADURA BIZIAN
NAHIA TERAN ITSAS-DORTOKAK ZAINTZEN



IBARPLAS

LEIHOAK · VENTANAS

TLF. 943-19 92 26 · ibarplas@ibarplas.com

www.ibarplas.com



Familiatik datorren tradizioa, Ibarplasen 1991z geroztik ari gara neurrirra egindako PVCzko leihoak eta kanpoko arotzeriako mota guztietako soluzioak fabrikatzen eta instalatzen.

GOI-MAILA:

Bioteknologia - Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
Administrazioa eta finantzak
Web aplikazioen garapena
Automatizazioa eta robotika industrialak
Mekatronika industrialak
Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

ERDI-MAILA:

Mantentze-lan elektromekanikoa
Beroa sortzeko instalazioak
Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria
Elikagaiak elaboratzeko teknikaria
Soldadura eta galdaragintza
Mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

Zibersegurtasuna eragiketa-teknologiaren inguruneetan

EMAN IZENAI

94 616 90 02

info@leartik.eus

LHEZIKETA


Matrikula-epea I

UZTAILAK 11-15

leartik.eus



lea artibai
ikastetxea
MARKINA-XEMEIN



Telefonoak

Osasuna

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Alzheimer elkarteak	943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zaldugei	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Mikel Lekunberri Alberdi (Eibar)	943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48 / 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte bulegoa	943 60 42 47
Anai Arte taberna	943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa	943 60 38 71
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldedia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Kontsortzioa	943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 89 91 52
Samiela Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua	943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua	943 60 71 37
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	900 12 14 00
Bizkaibus	902 22 22 65
EuskoTren	944 333 333
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
----------------	--------------

Argitaratzailea: **Karenka Komunikazio Elkarte** (Barrenkale 12, beheak 20830 Mutriku) Tel. **635748 393** e-posta: aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus Bloga: www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea: **Mutrikuko Udala** Kolaboratzaileak: **Josu Larrañaga, Inhar Mutilo**
Tirada: **2.200 ale** Lege Gordailua: **SS-787/01** ISSN: **1579-4792**
Inprimategia: **EUSKALINPRI** Banaketa: **Kalaputxi**

Iritzixa

Ibon Aginaga Imatz

AIZAN!

"Aizak!" esaten ez det inoiz inor entzun Mutrikun. "Hori dek!" esaten bai, ordia. Azken hori, Mutrikuko hika hizketa moldian herri maillan orokorrian mantendu dan esaldi bakarrenetakua izango da ziurrenik.

Gaur egun, herritar gehixenentzat erregistro hori ezezaguna izan arren edo hain hurrekua ez izan arren, garai baten bizi-bizirik zauan herrixan, eta hizkera ez-formal eta hurbillekua zan. "Zan" esan det, baina gaur egun ere Mutrikuko hika bizirik dauka esan geinke; oso gitxi erabiltzen badeue ere, zorionez ezto hilda.

Euskaraldia ere izan degu aurtan, eta espero baiño txapa gitxiago ikusi ditudan arren, balixo izan dea hizkuntza ohitxuretan eragitzeko.

Zuetako batzuk, biharbada, ikusiko zenitxuen "H" ikurra zakaen txapak, eta baitxa zeuen buruai galdetu ere: "Zer ote da H hori?". Ba, hantxuxene, aurtengo *Euskaraldiak* euki doan berezitasunetako bat izan da. Txapan "H" eukitziak (berdin zion txapan *Ahobizi* ala *Belarriprest* jartzen zolan) "Nahi badezu, neri egin lasai Hika" esan nahi zolan. Horren atzian Hika indartzeko eta berreskuratzeko lanian dabillen *ZirHika* izeneko EH maillako hika eragilez osatutako taldea da. Aurtan, *Euskaraldian* antolakuntziakin arduratzen dan Taupa! elkartian elkarlanian egindako bidian ondorixua izan da *Euskaraldiko* berrikuntza hori.

ZirHika, 2023an, Oñatin egindako EHko I. Hika Topaketan elkartutako hika eragileak gerora sortutako taldea da, eta *Euskaraldia* Hikaz gain, Durangoko Azokan EHko I. Hikadromoa ere antolatu zolan iaz. Aurtan, II. Hikadromua egingo da Durangon, eta azaruan, EHko II. Hika Topaketa Markina-Xemeinen. III. topaketa, 2027xan, Nafarruan.

Asmo orokorra hika indartzea bada ere, batez ere Nokan (emakumiei zuzentzeko erregistrua) jarri nahi izan deue azpimarra, historikoki kalteuena bera izan da eta. Noka emakumian ahalduntziakin ere lotu izan da (Eutsi horri!), eta hainbat ikastaro eta lanketa egin izan dira Euskal Herrixan luze-zabalian.

Hikagure erregistroez-formalada; "Laga erdara, biziganoraz!" esaldi ezaguna praktikan jartzeko beste aukera bat da, gainera. Eta beti ere, bi lagun arteko tratua izanda; hau da, batek nahixu badeu berari zuka (erregistro formal; normalian erabiltzen deguna) egitxia, arazorikan gabe hola egin eta kitxo!

Hortaz, badakizue, oraindiko bizirik dauan ondare aberats hori bul-tzadia emateko, zela edo hala Mutrikuko hika egitxan deuenak begiz jo, eta itsasargi hareientzua, beaurakesandakua jasotzea eta beurengandik ikastia izango da egin biharko deguna. Eta, zela ez, gero poliki-poliki erabiltzen hastia! Ni "txuleta" txiki bat prestatzen hasitxa noi (jajaja...).

Animauko al haiz?



Kalaputxi Herri-Aldizkariak
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza
jasotzen du

Mutrikuko Udala

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza 3-4, beheak
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



astelehenetik ostiralera								
DB03	LEKEITIO - DONOSTIA							
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00			
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25			
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30			
Donostia	* 7:55	11:30	14:30	19:30	---	* Unibertsitatetik		
DB03	DONOSTIA - LEKEITIO							
Donostia	8:00	11:00	* 14:30	18:00	20:30	* Unibertsitatetik		
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20			
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05			
DB04	ONDARROA - MALLABIA							
Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45		
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55		
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15		
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---		
OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: 23:25; 01:15.								
DB04	MALLABIA - ONDARROA							lanegun ostiraletan
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	* 22:05		
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:10	22:15		
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:20	22:30		
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40		
OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: 00:25. (Eibarren -25 min.)								
DB05	MUTRIKU - ZUMAIA							
Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25		
Deba	6:40	9:45	11:40	13:40	16:40	18:40		
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10		
DB05	ZUMAIA - MUTRIKU							
Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10			
Deba ^{35 min. zain}	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40			
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25			
DB06	ONDARROA - SORALUZE							
Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15	
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	SORALUZE - ONDARROA							
Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20	

larunbat, igande eta jai-egunak							
DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00			
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25			
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30			
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:10			
DB03	DONOSTIA - LEKEITIO						
Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00		
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50		
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35		
DB04	ONDARROA - MALLABIA						
Mutriku	7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	
LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: 23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55.							
DB04	MALLABIA - ONDARROA						
Mallabia	6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	23:00
LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: 01:10; 03:10; 05:10; 06:10. (Eibarren -25 min.)							
DB05	MUTRIKU - ZUMAIA						
Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10
DB05	ZUMAIA - MUTRIKU						
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25
DB06	ONDARROA - SORALUZE						
Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	SORALUZE - ONDARROA						
Soraluze	8:40	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20	

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero		Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00	DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Eibar	6:14	7:14	21:14	Errekalde	5:59	7:59	20:59
Elgoibar	6:24	7:24	21:24	Orio	6:14	8:14	21:14
Mendaro	6:33	7:33	21:33	Zarautz	6:20	8:20	21:20
DEBA	6:44	7:44	21:44	Zumaia	6:29	8:29	21:29
Zumaia	7:00	8:00	22:00	DEBA	6:43	8:43	21:43
Zarautz	7:08	8:08	22:08	Mendaro	6:52	8:52	21:52
Orio	7:15	8:15	22:15	Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Errekalde	7:29	8:29	22:29	Eibar	7:11	9:11	22:11
Donostia	7:38	8:38	22:38	Bilbo	8:20	10:20	23:20

ONDARROA - BILBO			BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera			astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena		lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40	A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25			Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	6:10	20:10	A3915 Durangotik	7:40	21:40
Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30					
jai egunak			jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40	A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	7:10	20:10	A3915 Durangotik	8:40	21:40

ESKERRIK ASKO, GOIZEKO IZARRAKO 6. MAILAKO IKASLEAK!

Oier, Manex, Haritza, Lizar, Izaro, Ametz, Youssou, Nora, Aimar Eg., Kima, June, Aimar El., Noa, Bidatz, Haizea, Alaitz, Jon, Libe, Ixone, Dagda, Ndiaye, Aritz, Urertz, Kimetz, Ayelen, Oihane, Ara eta Yani:

Bizitza etapak dira, eta hauek, hasi bezala, amaitu egiten dira. Bi urte zoragarri hauen ostean, iritsi da etapa berri bati helitzeko unea. Atzera begiratu eta eskerrak eman nahi dizkizuegu azken bi urte hauetan elkarrekin bizitako guztiagatik. Motxila esperientzia eta bizipen ahaztezinez beteta daramagu. Lan bikaina egin duzue eta zuen bidelagun izatea plazer hutsa izan da.

Laster institutuko ibilbideari ekingo diozue. Ziur gaude erronka guztiei aurre egingo diezuela, orain arte egin duzuen bezala: indarrez, ausardiaz eta ilusioz. Harro gaude zuetariko bakoitzak egin duen bideaz. Zortetik onena opa dizuegu etapa berrian. Mutrikuko kaleetan barrena ikusiko dugu elkar.

Besarkada handi bana guztioi!

Ianire, Maialen eta Xabi

URAZAL MUTRIKUKO ITSASKIROL TALDETIK

Kaixo:

2023. urte erdialdera Mutrikuko kayak eta padel erabiltzaile batzuk bildu ginen elkarte bat sortu eta horretarako gune bat lortzeko asmoz. Ordutik hona, URAZAL klub-a sortu, funtzionamendua zehazten joan, eta lortu genuen lokalari egokitzen penak egin dizkiogu. URAZAL-en helburua Mutrikun kayak eta padel erabiltzaileen artean harremana sendotu, ekintzak antolatu eta itsas kirol hauek bultzatzea da, eta horretarako herritarrei aukera luzatu eta taldeko partaide izatera animatu nahi zaituztegu!

Jada klub-eko antolaketa lanak aurreraturik, **URAZAL-en bazkide erabiltzaile gehiago hartzeko moduan gaude** herrian itsas kirol esparru hau bultzatzen jarraitzeko. Horretarako, bazkide izateko interesa izan dezakeen ororentzat, **bilera** bat antolatu dugu **ekainaren 25ean, 18:30etan, URAZAL klubaren lokalean** (Intxirri parean). Egingo dugun bilera horretan URAZAL klub-eko funtzionamendua eta bazkide izateko planteamendua zein den azalduko dugu. Era berean, harremanetan jarri nahi duenak, bertako bazkideongana jo edo mezua idatzi diezaguke **mutrikukokayakluba@gmail.com** helbidera.

Besterik gabe, interesa izan dezaketen itsas kirol hauetako zaleak bertan ikusiko garelakoan, gozatu dezagun itsasoaz eta kirol polit hauetaz!

URAZAL Mutrikuko Itsaskirol Taldea

LAGUN JOAN BERRIARI AGUR HITZAK

Arraunlariak triste,
Gaur ez dira irabazle,
Kaieko ur gazitan
Beso bihotz neketan.
Azken txanpan ahalegin,
Baina arraun bat zaie hautsi,
Hurrengoan lagunok
Garaipen zuekin.

Malenkoniatsu jartzen zenean, askotan abesten zuen Kanutok Urkoren kanta hori, Azken txanpa, eta lagunok berari jarraitzen genion, sekula asmatu gabe abestia nola amaitu...

Abesti hartan, Kanuto itsasoarekin izan zuen harremanean murgiltzen zen, eta lagun denok eramaten gintuen bere txalupa hartan, itsasoko bizipen gazi eta gozoak gogoan hartuta.

Lehorrera salto egin eta Itziarko Iber Lieber fabrikari hasi zenean, lagun guztiok ikasi genituen aluminioaren hainbat kontu, eta handik udal-brigadara jausi. Eginkizun anitzetako operari lehenengo eta brigada-buru ondoren, hainbat eta hainbat eta arazo gehiago konpondu behar izan zituen herritar guztion eguneroko bizimodua hobea izan zedin. Horrelakoa zen eta Kanuto, lehenengo guztientzako onura ekarriko duen lana, eta gero geroakoak. Eta jai egin behar zenean, jai.

Itsasoan eta lehorrean lana eginda, arrastoa utzitako gizona izan zen Xabier Lizardi, eta berari agurra egitera hurbildutako pertsona bakoitzak izango zuen, bai, istorioren bat Xabi gogoan hartzeko.

Geuk ere bai. Askok. Gaztetatik izandako hamaika istorio, hamaika historia. Batzen garen bakoitzean gogoratuko ditugunak. Gu gauden bitartean Kanuto ere gurekin izango delako. Eta gure istorioak eta gure historia berrituko ditugu, hamaika lagunok osatutakoa, Potronor izena eman genion lagunartean. Jai egiten dugunean ere gogoratuko dugu Kanuto, eta abestuko dugu:

Agur zorionak, irabazleari
Itsaso ez da agortuko oraindik.
Agur zorionak, irabazleari
Itsasoa ez da agortuko orain!

POTRONOR, 11 betiko



Umetatik lagunak
koadrillan aspaldi
Kanuto ezaguna
egin zela garbi
itsasoan botata
hainbeste izerdi
lihorrean ere ez zen
inoiz izan nagi
ez gara ahaztuko
Xabier Lizardi

POTRONOR
11 betiko

Xabier Lizardi Lekube "Kanuto"

“Elkarrekin lan egiteak beste ikuspuntu bat edukitzera behartzen gaitu”

Bi urte badira ekin ziotela ibilbideari. Denbora horretan zehar izandako gorabeheren berri jakiteko asmoz bildu da Kalaputxi Anaiarte elkarteko hiru batzordekideekin.

Orduan zenituzten asmoak errealitate bilakatu dira...

Ilusio handiz sartu ginen Anaiarteko zuzendaritza taldean. Talde ederra osatu ondoren, bazkide guztientzako lanean dihardugu etengabe. Aurreko batzordekideek egindakoari jarraipena eman diogu (kina, gimnasia, oroimen lanketa, korua...), eta beste berrikuntza batzuk ere jarri ditugu martxan eta horietako bat, podologoarena izan da. Aspal-diko nahia zen hori, eta azkenean lortu dugu. Ander Urkiri podologo debarra astero guregana etortzen da eta jendea pozez dago berarekin, eta bera ere gurekin gustura dagoela badakigu.

Bi urte hauetan astero egiten den dantza ikastaroaz gain, pare bat igandetan Guatekea ere antolatu dugu, eta parte hartze polita izan da. Musikari lotuta jarraituta, lau aldiz antolatu dugu Kantujira ekitaldia, herrian kalez kale kantuan aritzeko bertaratutako herritar guztien laguntzarekin. Azkena maiatzean egin genuen, Euskaraldia kanpainaren barruan eta jendetza ederra batu ginen herrian zehar euskal kantuak kantatzen. Batek baino gehiagok esan digu sarriago antolatu beharko genukeela.

Baina dena ez da kantua, eta, hilean behin, inguruetan



Zuzendaritza taldekideak.

zehar mendi ibilaldiak egiten ditugu. Kalean eta mendian egiten diren horiekin batera, barruko ekimenak ere jarri ditugu martxan: Irakurketa erraza euskaraz saioak ere egiten ari dira; xake ikastaroa eta saioak, meditazioa... Gimnasioak ere erabailtzaile ugari ditu.

Herrian eta Anaiarten betidanik arrakasta izan duen kina saioak barixaku, zapatu eta domeketan izaten dira bost eta erdietatik zortzi eta erdietara.

Bazkide kopuruari dagokionez...

Igoeratxo bat egon dela esango genuke, eta gaur egun 630 bazkide inguru gara elkartean. Bazkidetza kuota ez dugu uste garestia denik: 12 euro urtean. Urteko kuota horren truke bazkideek hainbat eta hainbat onura jaso ahal dituzte: Anaiarten egiten diren ekintzetan



Anaiarte Abesbatzaren emanaldia konbentuan



f ALAZNE OPTIKA



Jose M^a Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 - alazne.optika@gmail.com

ASTIGARRAGA ANAIK, S.L.U



ERAIKETAK

Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938

e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 beheka - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

parte hartzeko aukera eta, baita, Anaiartek dituen azpiegiturak erabiltzeko eskubidea ere.

Indartu beharreko arloak, zeintzuk?

Tabernaren beheko solairua nahiko genuke indartzea. Garai batean jende ugari biltzen zen bertan kartetan jokatzeko, edo berriketan... Covid garaiak etenaren aurreko egoera zaila da berreskuratzea. Jendea etxekotu egin dela iruditzen zaigu. Anaiarte leku aproposa da harremanak indartzeko, eta horretara nahiko genuke bideratu. Ahaleginak egingo ditugu jendea erakartzeko, karta joku txapelketak antolatu... ez dakigu... nahiko genuke bizitza eman tokiari.

Bestalde, korua indartu beharra dagoela ikusten dugu, partaide batzuk adinean aurrera doaz eta erreleboa behar dela argi dugu. Ea jendea animatzen den!

Izan dituzue esperientzia berriak bidaiak antolatzeko orduan...

Bidaien arloak badu bere mamia. Jendeak nahiko luke guk bidai luzeak antolatzeko, baina guk antolatuta oso garestiak ateratzen dira eta jende askorentzat ezinezko gertatzen dira. Ezin gara lmsersorekin konparatu. Horrelako bidaiak aurrera ateratzeko, eskualde mailan-edo antolatu beharko lirateke.

Aldiz, eguneko bidaiak arrakasta handia izan dute, eta uste dugu leku paregabean bizi garela urruti ez dauden inguru zoragarriak ezagutzeko. Askotan kanpokoak gehiago erakartzen gaitu, eta etxean ere baditugu paraje ikusgarriak, bai horixe. Era berean, esan, proposamenak



Eguneko bidaia Balmasedara

jasotzeko prest gaudela, eta norbaitek ezagutzen duen edo ezagutu nahiko lukeen hori guri adierazteko, gure esku dagoen guztia egingo dugu eta.

Batzordekideen arteko harremana...

Hamar laguneko lantaldea osatzen dugu, bakoitzak bere zeregina hartuta. Astero elkartzeko gara, eta gure arteko konplizitatea lortu dugu. Bestalde, batzordea berriro dugu, aurreko bi kidek utzi egin dute eta beste bi sartu dira. Egungo batzordekideok beste bi urtez jarduteko konpromisoa hartu dugu.

Baina gure arteko harremanaz gain, bazkide guztiekiko harremana ere garrantzitsua da. Horretarako, bulegoa astean hiru egunetan dugu zabalik: martitzen, eguazten eta barixakuetan, goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00etara.

Lerro hauek tarteko, orain arte Anaiarten izena ematera animatu ez diren erretiratuei esan nahi diegu animatzeko gurekin parte hartzera.



Mendi-irteera Sasiolara.

bazkide gehienek
ekintzez goza dezaten
dihardugu lanean

Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK

MUTRIKUKO TANATORIOA

Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

Kalbaixo
JATETXEA

Laranga Auzoa
Tel. 943 60 32 56
kalbaixo@gmail.com
MUTRIKU - Gipuzkoa

AGENDA 2030 GAIK UDALBATZAN


2024-2025 ikasturtean ekoizpen eta kontsumo arduratsua izan dute hauskargak gai ikasleek Eskolako Agenda 2030 programaren barruan, eta gaiari lotutako hainbat ekintza gauzatu dituzte ikastetxean. Behin egoeraren diagnostikoa eginda, ikasleen ordezkariak batek Eskolako Agenda 2030eko udalbatzarrean aurkeztu dituzte ateratako ondorioak. Era berean, euren eskaera eta proposamenen berri ere eman diete udal ordezkariari. Halaber, aurtengoan ikasleek hainbat konpromiso hartu dituzte. Udal ordezkariak ikasleen eskaera eta proposamenei erantzun diete udalbatza aretoan egin zuten udalbatzarrean.

Aurtengoan Lehen hezkuntzako ikasleek aztergai hartu zituzten arloak honakoak izan dira: Jostailuen kontsumoa, garaian garaiko elikagaien kontsumoa, eta uraren kontsumoa. DBH-ko ikasleek, berriz, Moda kontsumitzeko moduak. Guztiek atera duten ondorioa: Behar duguna baino askoz gehiago kontsumitzen dugu. Horren aurrean, proposamena egin dute datorren urtean herrian bigarren eskuko azoka antolatzeko.



ARNOKO XIX. MENDI IBILALDIA

287 lagun izan ziren Arno mendia zeharkatzen duen hogeita bi kilometroko ibilaldian. Ekainaren 1ean, goizean goiz, zortzietarako elkartu ziren oinezkoak herriko plazan. Horietako askok aurrez izena emanda bazuten ere, egunean bertan beste hogeita hamazazpi bat lagunek eman zuten izena bertan jarri zituzten harrera-mahaietan. Parte hartzaileek esan bezala «eguraldia aproposa» ibilaldia egiteko; berorik ez eta tarteka euri langarra. Hamarretarako, berriz, hirurogeita bat ume eta berrogeita zortzi guraso bildu ziren irteera gunean. Horiek ere ibilaldi dotorea egin zuten eta lehen txandan irten zirenekin bildu ziren Pikupeko hornidura-gunean. Txikiak ogitarteko goxoa jan eta Galdonamendi igotzeko indarra hartu zuten. Giro paregabearen bukatzeko aukera izan zuten guztiek herriko plazan. Mutrikuko Soka-tira taldearen eskutik Luma Gorri oilasko erreka jateko aukera ere izan zuten. Guztia antolatzeko, berrogeita bat boluntario ibili ziren batetik bestera. Burumendi Mendizale Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete guztiei, baita parte hartzera animatu zirenei ere.



XLII. UMEEN EUSKAL JAIA

Kolorez jantzi zituzten kaleak 42. Umeen Euskal Jaia egunean; guztira, 110 dantzari izan ziren Mutrikuko kaleetan txistulariek lagunduta. Gure Ametsa Dantza Taldeko lauorgeri gaztetxo elkartu ziren Zarauzko Jalgi Dantza Taldeko beste hogeita hamar dantzarirekin batera. Goizeko 10:30ean Albokako plazan bildu ondoren, kalejiran Zaharren Egoitzara abiatu ziren bertako egoiliarrei hiru dantza eskaintzera. Jarraian, Beheko Plazan beste hainbat dantza burutu ondoren, txistuaren eta danbolinaren soinuak lagundurik, herriko kaleetan gorantz egin zuten. 13:00etan Goiko Plazan goizeko ekitaldiari bukaera eman zioten Alardearekin. Aurtengoan, Gure Ametsa Dantza Taldearen 60. urteurrena izanik, dantzari guztiek elkarrekin bazkaldu zuten Egañaneko frontoian. Giro alaiaren indarrak hartu ostean, Beheko Plazan erromeriarekin eman zioten bukaera egin berezi bezain dotoreari.



BERISTAIN

PAPERDENDA ETA ESTANKOA

Barrenkale, z/g
943 60 35 44

ELORRETA

ERAIKETAK · ERREFORMAK · IGETSERITZA



Asier Lersundi 680 579 961
Kepa Martinez 617 842 004

San Agustin, 4B
MUTRIKU
Tel./Faxa 943 60 43 97
elorretaeraietak@gmail.com

BURUMENDI FG, DUELA 50 URTE TXAPELDUN

Duela berrogeita hamar urte, duela bost hamarkada, 1974-1975 denboraldian, Burumendi Futbol Gazteria Gipuzkoako Txapelaldun izan zen. Txapelaren lorpenaren 50. urteurrena ospatzeko, denboraldi hartako protagonistak mahai inguruan bildu ziren futbolari hain lotua izan den Lagun Artea soziedadean.

Joandakoak eta etorri ezin izan zirenak gogoan hartuta, lagun arteko giro ederrean eta bazkari gozaren inguruan urteurrena ospatu zuten eta, horrekin batera, bihotz-bihotzez, jokalarien esker ona omenalditxo batez eskaini zioten Ortiz entrenatzaile izan zutenari.

Topaketa bukatzeko, bildutako lagun guztiek esan zuten: Eskerrik asko, Ortiz! GORA Burumendi trakatra!!

Elkartu zirenak: Joseba Iñaki Illarramendi, Carlos Zizzo, Iñaki Iparragirre, Eduardo Lezertua, Juan Carlos Arrieta, Ani Arruabarrena, Jose Luis Uranga, Xabier Urkiza, Luis Mari Ortiz, Jose Luis Basurko «Anzarda», Iñaki Agirregomezkorta; Juan Miguel Lizardi, Guillermo Galparsoro «Xaxtre», Joxu San Martin, Juan Inazio Aranberri «Ametza», Jose Angel Lekube eta Jesus Mari Alonso.

Bertaratu ezin izan zirenak: Imanol Andonegi, Joseba Larrañaga «Saturran» eta Juan Luis Urreisti «Olabarro», Gaudenzio Burgaña, Jose Luis Martinez, Juan Carlos Perez, Martin Zabala, Valentin Zumalabe eta Paco Lopez, entrenatzailearen ordezkioa.



ESKERRIK ASKO, ANTON

Anton Urreisti margolari mutrikuarrak bere artelan esanguratsu bat eman dio Mikel Deuna Zaharren Egoitzari, Mutrikuren muina gogoraraziz.

Mikel Deuna Egoitzako partaide guztiek eskertza adierazi nahi diote herri osoaren aurrean. Eskerrik asko.

Euskal Herri osoan eta estatu osoan zehar azken urteotan sariak eta sariak biltzen jardun duen Antonen koadro hau Egoitzako toki nagusi batean kokatuko dute egoiliar eta bisitari guztien gozagarri.



UDAL EUSKALTEGIA UDAKO IKASTAROA

Irailaren 8tik 26ra bitartean emango dituzte eskolak, Elgoibarren, hiru astetan, astelehenetik ostiralera, egunean bi orduko saioak, guztira 30 ordu. Matrikulatzeko epea, uztailaren 1etik 18ra eta irailaren 1etik 5era. C1 eta C2 mailetako bigarren azterketaldira joango diren ikasleentzako izango da, ikasturtean zehar ibili direnentzat eta baita azterketaldi ireki edo libreria joan nahi luketenentzat ere.

Klaseak goizez edo arratsaldez aukeratu ahal izango dira, baina ikaslerik gehien biltzen dituen txandan bakarrik emango dira. Besterik jakin nahi izanez gero, deitu 943 74 27 31 telefonora edo idatzi posta elektronikora: udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

EÑAUT TXAPELDUN EUSKAL SELEKZIOAREKIN

Euskal Herriko kirol selekzioen aldarrikapenak urrats berri bat eman zuen euskal pilotaren arloan eta munduko beste estatuetakoko selekzioen aurka jokatzeko ofizialtasuna lortu zuen. Aitorpen horren osteko lehenengo lehiaketa Gernikan jokatu den *Jai Alai Basque Pilota Nztion League* txapelketa izan da. Bertan, mutrikuarrek ere hartu dute tokia: Eñaut Urreisti Euskal selekzioarekin jokatura, eta Erik Mendizabal Espainiakoarekin. Nesken artean, tamalez, mutrikuarrok ez dugu ordezkari izan, Eneritz Lizardi oraindik belauneko lesioa sendatzen ari delako, eta Oaia Otaño oraindik ez delako aukeratua izan. Izango dira hurrengo ere aukerak Euskal Selekzioak beste txapelketa batzuk jokatzeko, eta gure herriko pilotariek izango dute aukera elastiko berdea jantzi eta txapelak janzteko. Zorionak guztioi!



Ziortza
ILEAPAINDEGIA

943945308 • Jose Maria Alcibar 10 • [@](#) [f](#) Ziortza_ileapaindegia

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
RPS 183/12

DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

El laberinto del fauno

Umetatik entzun izan ditugun ipuinek geure baitako mundua eratzen laguntzen digute. Denborarekin, mundu horretako koloreek bere indarra galdu ohi dute, errealtatearekin izandako talken erruz. Baina, ume gineneko irudimenaren magia hori geure barruan geratuko da, nahi dugunean bilatzeko.

Film honek neska ameslari baten mundura eramango gaitu, gerra zibil espainiarreko errealtate krudelak inguratutik. Batak bestearekin izango duten loturek jorratuko dute istorioa, horietako bakoitzean ezagutuko ditugun pertsonaiekin batera. Maitagarriak batzuk; beldurgarriak beste batzuk.

Berezkoa daukagun irudimena gurekin batera helduko da, denborarekin zahartu ahala. Ezagutzen joango garen gauzek beren lekua hartuko dute gure barnean, aurretik zegoenari lekua estutu edota kenduta. Geure esku dago berezko magia horri eustea, datorrena berarekin batera besarkatuta. On egiten digunari lekua eginda, eta mina ematera datozen monstruei ateak itxita.

«Nik? Hainbat izen izan ditut...»



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: El laberinto del fauno

Urtea: 2006

Zuzendaritza: Guillermo del Toro


Gidoia: Guillermo del Toro

Aktoreak: Ivana Baquero, Doug Jones, Sergi Lopez, Maribel Verdú, Ariadna Gil, Alex Angulo, Federico Luppi

Iraupena: 1 h 52 min.

Barkamena existituko balitz bezala

Mariana Travacio



Western argentinarrak paisaia gertatzen den eleberri honetan, gorrotoa eta mendekua daude istorioaren oinarrian, eta, egunez egun egiten ditugun ekintzak gorabehera, bizitzak aurrera egiten duela erakusten du. Mendeku goseak pertsonaiei sortzen dien barne gatazka ere agerian uzten dira eleberrian zehar: Errua, ezinegona, zalantza. Bolerentzia eta gorrotoa presente daude, baina baita adiskidetasuna eta leialtasuna ere. Pertsonaia hitz gutxiak diren arren, beraiek esandakoak ez dira alferrikako hitzak.

Fernando Reyk egindako itzulpenari esker, Mariana Travacio lehen aldiz irakurri dezakegu euskaraz. Egiturari dagokionez, kapitulu laburrez eraikita dago eleberria, eta horrek erritmo bizia ematen dio irakurketari; erritmoa arina izanagatik, irakurleak istorioaren barne denbora geldoa presente izango du etengabe. Travaciok lehen kapitulutik azkenera arte tentsioa mantentzea lortu du, eta tentsio horrek irakurlearengan duen eraginaren ondorioz, irakurtzeari uztea kostatuko zaio honi.

Eleberri honek euri usaina du, baina baita lur siku eta izerdi usaina ere, gin eta mate zaporea.



POTERO

943 60 36 43

Barrenkale 9 - Mutriku

LEA-ARTIBAI

Hileta zerbitzuak - Beilatokia

MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20

ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960

Mug: 659 879 268



Euskal ezkontza 2025




Gure Ametsa Dantza Taldea



GURE AMETSA DANTZA TALDEA

60 URTE DANTZAN



“Euskal Dantzak ez du etorkizun onik, ez Mutrikun ez Euskal Herrian, eta hori triste da”. Esaldi hau azpimarratzen zen 2005. urtean “Gure Ametsa” dantza taldekoei egindako elkarrizketan Kalaputxiren 40. alean, berrogeigarren urteurrena ospatzen zuten unean. Beste hogeit hamar urte igaro dira eta osasunarekin jarraitzen du taldeak 60. urteurren honetan ere, denon poztasunerako.

Gaurkoan atzera egin nahi izan dugu Taldearen historia ezagutu nahian, eta, horretarako, garai ezberdinetako pertsonen galdetu diegu beraiek bizi izandakoaz.

Mari Karmen Egurbide Arrieta eta Joxe Mari Galparsoro Sustaeta Nola izan ziren emandako lehen urratsak “Gure Ametsa” Dantza Taldea osatzeko?

1960. hamarkada hasieran bazegoen aldakuntzara bultzatzen zuen giro sozio-politikoak. Gerra bukatu ondoren, presio eta jazarpen handia pairatu behar izan zuen Euskal Herriak. Izu-ikara bizi zen egunerokoan eta, batik bat, gerra bizi izan zutenek pasatu zuten okerraren. Etxeko sukaldeetan ere ez zen ausartzen jendea abertzaletasunari eta gerrari buruz hitz egiten: isiltasuna zen nagusi.

Baina gerra ondorengo eskarmenturik gabeko gazte jendea, poliki-poliki joan zen informatzen eta egoeraz jabetzen. Batzuk bide politiko aldetik lerratuko ziren, beste batzuk kultur bideetatik, mugimendu sindikaletik eta abar.

Orduan ez zegoen elkartzeko aukera handirik. Neska-mutilak ere bananduta heziak ziren, dena baitzen pekatu, eta mendi giroa bilakatu zen gure unibertsitate. Bertan, igandeetako txangoetan elkartzen ginen neska-mutilak, eta, jakina, ideia trukatzeko haietan taldetxo batek hartu genuen erabakia galtzen ari zen dantza-sueltoa biziberritu behar genuela. Horrela, udaletxeko sotoan egin genuen bilera bat asmoa gauzatzeko bidean jartzeko, eta adinean nagusiago ginenoi eman ziguten arduradun izateko lana. Sotoan bertan hasi ginen fandango eta ariñ-ariñak irakasten plazan dantzatzeko ibiltzen ginenok. Apur bat gorpuztean izena behar zuen taldeak, eta, hala: “Gure Ametsa” —Kosme Furundarenaren aportazioa—. Sortze estatuturik gabe, soilik, gazte talde bat arduradun batzuekin.

Dantza-soltetik dantza tradizioaletarako jauzia nola eman zen?

Soltetako-dantzak menperatzeko bidean, gauza berrien egarria ere bai. Mutil-neska taldea prest zegoen, eta irakasleak behar. Hala, Jose “Masillas”en ezaguerak lagun, Debatik hurbildu zitzaizkigun Mertxe eta Joxe Domingo irakasle moduan —Mertxeren lana azpimarratu nahi genuke bereziki—.

Talde handitzen joan zen —denbora gutxian 40 bat lagun elkartu ginen—, eta entseguak egiteko toki genuen udaletxeko sotoa txiki geratu zitzaigunez, Zabel Jauregian eskola ematen zuten Mesedetako Ordenako buruari eskatu genion baimena orduan patioa deitzen genion ataria eta bertako frontoi estalia erabiltzeko. Hala, leku egokian jarduteko aukera genuen eguraldiaren beldurrik gabe. Dantzatzeko behar genituen tresnak gordetzeko Manueleneko Ixabelek egin zigun lekua harategiaren azpian zuten lokal baten.

Gaurko gazteei kosta egingo zaie ulertzea, baina orduan grabatzeko tresnarik ez zegoen, eta doinuak kantatuz egiten ziren entseguak, gure ondorengoek ere hala jardun zuten denbora luzez: bi orduz txandaka.

Tresnak aipatu dituzue. Kaleratzeko orduan zenbait behar izango zenituzten...

Ez gara gehiegi luzatuko kontatzen; esan, bakarrik, jende askok hartu zuela parte jantziak, makilak, arkuak... prestatzen. Aipatu soilik Albaroneko dendan oso merke ematen zizkigutela telak, eta Pakita Egañak asko lagundu zigula nesken arropak josten. Arkuak, zestak egiten eskarmentua genuenez, aita Patxikoren tailerrean egin ziren.

Eusebio Azkue Iparragirre

Urte askotan izan zara, zure ingurukoekin, dantza taldearen ardatz. Nola bizi izan zenuen garai hura?

1965eko uda ondoren taldea osatu, eta hasi ginen dantzan. Hamazazpi urte nituen orduan eta berrogeita zazpirekin utzi nuen taldea. Lehen aldiz 1966ko maiatzaren 1ean —Langileen Eguna— atera ginen plazara, nagusien taldea zortzi emakumezko eta zortzi gizonezko osatua, gehi laguntzaileak. Egun berezia izan zen, jakina, hilabeteetako lanak jendaurrean jarri behar genituelako. Poza, arrara, kezka..., sentimendu ugari, eta pozik gelditu ginen egindako lanarekin.

Batzuk diote taldeak Goizeko Izarra izena ere hartu omen zuela?

Argituko zenuke?

1969an Goizeko Izarra Elkarte Kulturala sortu zen herrian, Ikastola sortu eta garatu nahirik. Estatutuak egitean, beste zenbait ekintza kulturali bide ematen zieten bere barnean lantzeko: Euskara, antzerkia, dantza, musika... Hori horrela, orduko giro sozio-politikoan jarduteko erraztasuna ematen zuen. Orduan, gure dantzariak zenbait aldiz atera ziren kalera Goizeko Izarraren izenarekin eta logotipoarekin, baina inoiz ez zen izan taldea irensteko asmorik. Bertako batzordean parte hartzen zuten gutako



Hasierako Taldea

Jose Mari Galparsoro, Mari Karmen Egurbide, Jose Agustin Basurko (Pintxia), Frantzisko Lekunberri, Andres Egurbide, Izaskun Motriko, Pedro Osinalde, Jose Antonio Urreisti (Bisteder), Izaskun Ituarte, Markel Arizmendi, Eusebio Azkue, Mertxe (Irakasle debarra), Jose Domingo (Irakasle debarra), Juanjo Azkue, Mari Juli Azkue, Mari Karmen Ibarzabal, Virtudes Ibarzabal, Kontxi Txoperena, Leonardo Belaustegi, Eloisa Galparsoro, Andone Ojanguen, Maria Asun Zenekorta, Itziar Basterretxea, Kosme Furundarena, Zezilio Pagoaga (txistularia), Itziar Egurbide, Juanito Galparsoro, Jesus Barrenetxea (txistularia), Oskar Azkue (atabaleroa)

bi lagunek normaltasun osoz. Giroa aldatzean, berriro Gure Ametsa jarraitu genuen izaten.

Zein izan zen zuen sasoian dantza taldeak jarraitu zuen ildo?

Besteek jarritako bideari eutsi. Taldea hobeto prestatu, eta oinarritzeko zena, ume eta gaztetxoak prestatzen joan —pare bat ordu jarduten genuen egunero—. Horretan saiatzen ginen Juanjo, Lurdes eta hirurok. Nagusiok, gure aldetik, debarrek irakatsitako dantzak menderatu ondoren, berriak ikasteari ekin genion. Esteban Garro zarautzarrak eta Benito Brit oriotarrak asko lagundu ziguten, bata iparraldeko dantzekin, eta besteak dantza-soltean, oso trebea baitzen. Hain denbora luzean ikastaroak ere egin genituen, baita Mutrikun dantzatzeko zen Jorrai Dantza errekonstruatu ere. 25 urte betetzean dantzatu genuen lehen aldiz Sorgin Dantza —ez zena asko ikusten orduan—, eta Kaxarranka ere ikasi genuen lekeitiar baten eskutik, baita kutxa prestatu ere.

Jantzien prestaketari, mutilenei gehienbat, garrantzia eman genion, eta betiko praka eta alkandora zuriak utzita, ehun bereziko belanera arteko praka beltzak eta txalekoak jantzi genituen. Neskenak asko aldatu ez baziren ere, bai oihalen kalitatean. Eta arrokekin batera, tresneria; molde bat prestatu genuen egurrezko arkuak erosoago egiteko, baita aluminiozko luzeak ere, lurtean sartzeko puntak ezarri.

Aldaketa hauek aurrera eramateko dirua behar zenez, “Lekuzar” izandako taberna ireki genuen, baita administrari bat jarri ere: Rosarito Lezertua.

Nola izaten ziren kanpoko ekitaldiak?

Esango nuke Umeen Euskal Jaiak inguruan asko egiten zirela eta han izaten ziren gure gazte eta umeak, baina nagusiok herriko emankizunetz gain, ez genuen izaten emanaldi asko. Hala ere, hainbeste urtetan jardun ondoren, ezagutu izan ditugu Donibane Garazi, Bilbo, Goierri aldea... eta maizago Bizkaiko hurbileko herriak.

Estitxu Landa, Amagoia Basurko, Lurdes Urkiza, Karmele Lekube eta Ezkide Agirrebengoa

Dantza Taldean urte asko egin dituzue. Nola izan zen ardurak hartu beharreko unea?

Esan duzuen bezala, urteak generamatzen dantza taldean —hirurogei urte darama Lurdesek— eta, urteak pasa ahala, eta betidanik izan da hala Gure Ametsan, ardurak hartzen joaten zara ume eta gazteei irakasten zein beste eginkizunetan. Une baten, talde nagusiko ia mutil guztiek batera utzi zuten taldea, eta noraezean gelditu ginen nagusi guztiok, gazte eta umeekin soilik —40 bat neska eta 12 bat mutil—. Hala ere, Umeen Euskal Jaiak goren aldian zeuden, eta jarraitu genuen hamalau urte arteko gazte eta umeekin. Gehituko genuke, nagusien mutil taldea falta zela, eredu gabe gelditu zirela gaztetxoak eta mutilen parte hartzea gainbehera joan zela poliki-poliki, inguruko herri askotan bezala, salbuespenak salbuespen. Badira hamar urte gutxienez mutil talde oso bat ez dugula taldean. Orain dantzariak ditugu, mutil zein neska, eta elkarrekin dantzatzeko dute.

Hala ere, mutilak falta, baina indartsu ikusten da taldea...

Hala da. Nafarroako eta Iparraldeko jauzi eta dantzak, soineko gaurkotuak, sarean dantzak ezagutzeko aukera, irakasteko behar diren doinuak eskura izatea..., eta gaurko neskek kriston indarra eta gaitasuna dutela, horiek guztiek egin dute Gure Ametsa Dantza Taldeak aurrera egitea. Zain gaude ea mutilak ausartzen diren gurekin dantzatzera. Mugimenduak ikusten dira.

Eta jantziak aipatu ditugunez, une baten ehun bat poxpolin jantzi ziren. Erabili izan ditugun lokaletan hondatu egiten zirenez, etxeetara eramaten ziren, eta ziur etxe askotan zokoren batean egongo direla. Horiek errekonstruatu gustatuko litzaiguke, beraz, eskaera hau egingo dugu: poxpolin arropak etxean zokoraturik dituzuenok jarri gurekin harremanetan, erabilera egokia emango diegu-eta.



Sorgin dantzarako prest

Jurgi Flores, Jokin Lopez, Egoitz Iñarra, Aitor Santaia, Oier Elezgarai, Xabi Urreisti, Unai Aldabaldetrekua eta Beñat Urkiza

Gaurko kideak

Urteotan guztietan, belaunaldi askok eta askok parte hartu dute gure dantza taldean: batzuk hasi eta utzi dutenak, eta beste batzuk oraindik dantzan jarraitzen dutenak. Poza eragiten digu gurekin dantzan hasi nahi duten ume eta nerabe kopurua urtez urte handitzen ikusteak. Egun, 90 haurrek eta 45 gaztek osatzen dugu taldea: Lehen Hezkuntzan bost irakaslek jarduten dugu; Bigarren Hezkuntzan eta Unibertsitateko adinetan, berriz, lauk. Nahiz eta taldea aurrera eramateak ahalegin handia eskatzen duen, gure lana ilusioz eta pasioz egiten dugu, ondoren jasotzen duguna eta gure ondarea bizirik mantentzea aurrera egiteko nahikoa arrazoi badirelako.

Duela 6 urte, herriko jaietan eskaini genuen ikuskizun batek gure norabidea aldatu zuen. Emanaldi hark sekulako arrakasta izan zuen, eta herritar askoren begirada berriz guregana zuzentzea lortu genuen. Euskal dantzen sustraiak albo batera utzi gabe, beste estilo batzuekin jolastera animatu ginen. Horrela, tradizioari ukitu berritzaileak eman, musika estilo ezberdinak nahastu eta koreografia berriak sortuz, ikusle berriak erakarri genituen. Modu horretan, dantzaren bidez gure kultura zaintzen jarraitzearekin batera, berritzen eta biziberritzen ere bagoaz.

Haur eta gazte askok aurkitu dute hemen beren lekua: lagunak, ilusioa, diziplina, eta baita erronka pertsonalak gainditzeko aukera ere. Dantza ez baita soilik oholatza gainean mugimendu bat egitea; dantza emozioa, lotura, istorioak kontatzeko modu bat da. Eta gu harro gaude gure historiaz, gure eraldaketaz eta gure taldearen indarrak.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu urte hauetan guztietan gure alboan egon diren guztiei: dantzari ohiei, gurasoei, laguntzaileei, ikusleei eta, jakina, gure ikasleei. Zuei esker iritsi baikara 60. urtera, eta zuekin batera egin nahi dugu bide hau aurrera.



Gaba Beltza, 2019 urtea

Txistu-danbolin hotsak gure kaleetan

Hamaika aukera ditugu gaur egun jai-giroa sortzeko. Sasoi batean osagai gutxi behar izaten zituzten horretarako: txistua, danbolina, danborra eta ondo pasatzeko gogoia. Musika-tresna horiek elizako jaietan ez ezik, beste edozein gertaera garrantzitsutan ere entzun zitezkeen.

Dokumentazioak erakusten digunez, aspaldi-aspalditik ibili dira danbolinteroak eta danborrariak gure herriko kaleetan. 1507ko Madalen eguneko prozesioan bi lagun aritu ziren danbolina eta danborra jotzen. Gorputz egunean ere ohikoa zen musikak Mutrikuko bazterrak alaitzea: *di el día de Gorpuschristi al tanvolyn e a su conpañero arabe seis tarjes* (1509).

Bi jai horietan ezinbestekoa izaten zen danbolinteroek zerbitzua, mutrikuarrak izan, zein inguruko herrietatik ekarritakoak. 1626ko madalenetan, esaterako, udalak 25 erreal ordaindu zizkien Mutrikuko eta Debako danbolinteroek, *en dar de comer a los dos tamborinos desta villa y de Deva en las fiestas de la Madalena*. 1631. urtean Lucas de Yturizak 36 erreal jaso zituen Gorputz egunean eta madalenetan danbolina jotzeagatik. 1635. urtean herriko danbolinteroari, *al tamboril*, 24 erreal ordaindu zizkieten; madalenetan Eibartik joan zenak, berriz, 55 erreal jaso zituen. 1777an soldatapeko danbolinteroak zegoen Mutrikun, baina herriko zaindariaren jaietan, bigarren bat ekartzan zuten kanpotik, *70 rs pagados al tamboritero que se trajo de fuera segun costumbre*.

Maiatzaren 3a, Izara santuaren eguna, egun handia zen Mutrikun eta, nola ez, orduan ere danbolin eta danborraren doinuak entzuten ziren. 1765. urtean 72 errealeko gastua izan zuten kanpotik ekarritako musikariek, *al atabalero y tamboritero por la ocupacion de a cada 3 dias inclusos los de la venida y buelta*.

Bestelako ospakizunetan ere bai

Erlijio kutsuko jai horiez gain, bazeuden herritarrek gustura ospatzen zituzten beste gertaera batzuk ere. Horietan ere ezin zan faltatu danbolinik.

1512. urtean Fernando de Leyçolaren itsasontzia uretaratu zutenean, kasurako, danbolinteroari deitu zioten: *por mandamiento de los alcaldes a Ramos tanboryn por que fuese con su tanboryn a donde se botava la carraca*.

1768ko uztailen Mutrikun egin ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Sei danbolin-jotzaile eta sei danborrero edo danbor-jotzaile ibili ziren, *seis tamboriles y seis tambores que estuvieron en la Junta*.

Oraintsuago, 1802ko urrian, Asturiasko printzeak, aurrerago Fernando VII.a erregea izango zenak, Maria Antonia Napoleskoa lehengusina hartu zuen emaztetzat. Mutrikuko udalak poza adierazteko, azaroaren 30ean, meza berezi bat egitea erabaki zuen. Orduan ere musikak alaitu zuen giroa, *y que la vispera, y dicho dia de la funcion haya tambor y tamboril para la celebridad de tan plausible noticia*.

Araudia

Lehenago ere egongo zen araututa txistularien jarduna, baina ez dugu horren berri. 1933ko uztailaren 2an, Nikasio Andonegi alkate zela, Txistulari bandaren araudia, *Reglamento de la banda de txistularis*, onartu zuen udalak. Labur azalduko ditugu araudiak jasotzen dituenak:

Bi danbolinterok eta danborrero batek osatzen zuten banda, *txistu primero, txistu segundo y atabalero*. Soldatak eta musika-tresnak udalaren kontura izaten ziren.

Maiatzaren 1etik irailaren 15era, jaiegunetan, kalerik kale ibiltzen ziren, goizeko 7,30etan hasita. San Pedro, Madalen, San Inazio eta Kalbario bezperan ere kalerik kale ibiltzen ziren,

arratsaldeko ordu bietan abiatuta.

Kalbario bezperatik San Pedro egunera arte, jaiegun eta domeka guztietan, Beheko plazan jotzen zuten, txandaka musika-bandarekin batera. Garizuman, ordea, ez zuten jotzen.

Uztailetik Kalbario bezperara arte, berriz, Txurruka plazan jotzen zuten jai egun eta domeka guztietan, orduan ere musika-bandarekin txandakatuz.

Ordutegiari dagokionez, azaroaren 1etik martxoa amaitu arte arratsaldeko lauretan jotzen zuten; apiriletik uztailera seietan; eta uztailetik urrira zazpietan. Kasu guztietan musika-bandak baino orubete lehenago eskaintzen zuten emanaldia.

Horrez gain, txistularien bandak hiru erromeriatan ere jo behar izaten zuen: Olatzen San Isidro egunean, Mijoan San Jeronimo egunean eta Astigarribian San Andres egunean. Egun horietan kalejira egiten zuten herrian eta arratsaldeko ordu biak aldera abiatzen ziren. Irteera horietan 10 pezeta jasotzen zituen txistularien bandako kide bakoitzak. Auzo horietakoek goizetik joateko eskatuz gero, bazkari eta merienda gastuak eskatzaileek ordaintzen zituzten.

Gaur egun Mendaro udalerrian dagoen arren, sasoi batean abuztuaren 14an, amabirjinetan, Azpilgoeta auzora joan behar izaten zuten. Hilaren 14an joaten ziren, iluntzean, eta bertan pasatzen zuten gaua, baita hurrengo bi egunak ere (hilak 15 eta 16). Gaueko hamaiketan amaitzen zuten joaldia.

Araudi horretako puntu asko ez daude ahaztuta oraindik: gazte izateari aspaldi utzitako mutrikuar batek oraintsu esan didanez, herrian kalejira egiteko usadioa, *Santakutz egunian hasten zan, eta domekan-domekan eta jaixetan kalia bueltia ematen zeuen, Kalbaixo egunera arte. Santakutzetik Santakutza*.

Diana edo «goiz-eresia»

Esan bezala, Araudiaren arabera, maiatzaren 1etik irailaren 15era bitarteko jaiegunetan, goizean goiz egiten zen kalejira edo diana, goizeko 7,30etan.

Itxura denez, sasoi batean, galduta egon zen ohitura hori. Hori dela-eta, hau idatzi zuen Angel Osoro "Aberri"k: *Igande goizetan gure txistulariak esnatzen gaituzte beren soñu goxo ta alaiekin. Urte batzuetan galduta egon da oitura eder au, baño berpiztu da* (Argia, 1928.07.08).

Kalisto Basterretxea "Itxas Aurre"k, berriz, beste hau: *Oitura zarrak goguan iduki bear ditugu beti, orregatik galdetzen det ia txistulariak zergatik ez duten jai goizetan kalean barrena jotzen. Oso ederki ematen du ta gañera oitura zar zarra da* (Argia, 1931.05.31).

1932ko maiatzaren 15ean Mutrikuko Emakume Abertzale Batzak eta Batzokiak antolatutako jaietan oso goiz ibili ziren: *Txistulari ta tuntunak goiz-eresi alai ta pozgarri bat joko dute seiretan*.

Are goizago ibili ziren 1932ko San Inazio egunean. Joseba Arruti "Arnop"ren hitzetan: *Igandean bostetan goiz-eresia (diana); iñoiz ez det aditu eresaldi alayagorik, Larrañaga, Eizagirre ta Agirre, tanborrarekin Elordi lagun zutela* (Argia, 1932.08.07).

1933ko abenduaren 3an Marista anaiek Frantzisko Xabierren omenez antolatutako jaietan ere diana egon zen: *goizean sei ta erdietan: txistulariak goizeresti alaya motrikoarrai Jabier*



Txistulari banda (1951): Joakin "Txiki" Larrañaga, Jesus Barrenetxea "Dondai" eta Juanito Elordi "Danbor"



Miguel Uriá (1927)

Donearen egun aundia adierazten diela.

Debekuak

1933ko araudiak ezartzen zuen Garizuman ez zela jotzen danbolina. Horrez gain, 1897ko ordenantzen arabera, baten bati olio santua ematen zebiltzala iragartzen zuten txilin eta kanpai hotsak edo *agonixa-kanpaiak* adituz gero, tarte batean, jotzeari utzi behar izaten zioten danbolinteroek, *cesarán de tocar por un breve intervalo y definitivamente al Ángelus si la autoridad local no dispusiese en determinados días que se toque por más tiempo*.

1897ko ordenantzek ziotenez, agintariei baimena eskatu ezean, danbolinteroek ezin zuten jo zehaztutako egun eta tokietatik kanpo, *tampoco podrán los tamborileros tocar el tamboril fuera de los días en que tienen obligación y del lugar ó sitio destinado para ello*.

XX. mendean pentsaezina izango zen, baina sasoi batean, jaietan-eta, parrandarako eta giro ona sortzeko, tarteka, herriko gazteak txistu-danbolinekin ibiltzen ziren kalerik kale. 1802ko San Pedro egunean, adibidez, 32 urteko arrantzale mutrikuar batek Jose Antonio de Bustindui danbolinteroari txistu-danbolinak, *el tamboril y silbo*, eskatu zizkion gauzez lagunekin jotzeko. Gaueko ordu txikietan, hirurak aldean, hiru lagunek musikaz blaitu zuen Goiko plazatik Atxukalerako tartea.

Zenbaitetan udalak ez zituen begi onez ikusten herrigunetik urrun zeuden parajeetako txistu doinuak eta dantzak, gehiegikeriak ekar zitzaketelakoan. 1746ko abuztuaren 1ean, konparazio baterako, udalak, dekretu bidez, debekatu egin zituen, *decretaron que en ningún tiempo se permitiese tanboril ni danza con cualquiera son que sea en ninguna de las hermitas de la jurisdicción de esta villa, especialmente en la de San Blas*.

Adineko mutrikuarren akorduan daude oraindik txistulari bandako izenetako batzuk: Joakin "Txiki" Larrañaga eta Pedrito Odriozola "Errementeikua" txistuarekin, Jesus Barrenetxea "Dondai" silbotearekin, Juanito Elordi "Idrole" (edo "Danbor") danborrarekin, Antonio Alkorta "Danborrero"... Horien aurretik Luxio Arostegi zapataria eta Migel Uriá "Mieluria".

Uriá danbolinteroak

Herri guztietan egon dira pertsona bereziak, gure artetik joaten direnean ere gogoan geratzen direnak, horietako bat dugu Miguel Uriá. Mutrikun jaio zen, 1854. urtean. Bataio-agiriaren arabera Miguel Gregorio Nazianceno Uriá Arrate izan arren, gehienek *Miluria* edo *Mieluria* esaten zioten.

1927ko urriaren 29an Mutrikuko udalak jubilazioa eman zion Miguel Uriá aguazilari, zerbitzuan 48 urte eman eta gero. 73 urte zituen Uriak. 1880. urtetik aguazil (*jefe de alguaciles*) eta danbolintero lanak uztartu zituen. Bi baldintza jarri zizkion erretiratzeko: batetik, jubilatutako arren danbolina jotzen jarraitu beharko zuen, eta, bestetik, bizilekua bere ordezkari aguazilari utzi beharko zion. Emandako zerbitzu finagatik Udalak *Mieluriari* omenaldia egitea erabaki zuen, *un homenaje por su buen comportamiento durante los años de su servicio*.

Ez zen hori Uriak jasoko zuen aitortza bakarra. Hilabete batzuk lehenago, ekainaren 5ean, ARGIA astekariak bere argazkia argitaratu zuen, baita Iñaki Iriondo "Arno Mendi" mutrikuarren hitz ederrak ere: *gure uri onetako erri zaintzalle ta danbolin jotzalle pixkor-pixkorra (...) erri zaintzalle zintzua, bere zeregiñean zuzen-zuzena beti, gure "Miluria"*. Hainbeste urtean lanean egonda, ume izandakoak hazten ikusi zituenez, batzuk alkate eta zinegotzi izateraino, hau esan zion kazetariari: *"atzo" nere makiliakin aurrian ibiltzen nitxukuen oiek eta orain... nere nausi ditzuk*.

1928ko urtarrilaren 26an «La Voz de Guipúzcoa» egunkari errepublikarrak beste horrenbeste egin zuen, bere argazkia eta, aldamenean, hitz gozoak argitaratu zituen: *48 años de alguacil y "chistulari" (...) el cargo musical, que sigue desempeñando, asistido de la simpatía de sus convecinos, que consideran en él al legítimo representante de una costumbre tradicional*.

1937an hil zen, 83 urte zituela. Garbi esan dezakegu, Mutrikun esan ohi den bezala: *kosteria eginda Juan zan*.

Bere aita ere aguazila eta danbolintero izan zen: Jose Sebastian Uriá Labaien (1818-1880). 23 urterekin (1842an) hasi zen udaleko danbolintero *-tamborilero-* lanetan, eta aurrerago (1853) aguazil lanak ere hartu zituen bere gain. Agustín Yturriño danbor-jotzailearekin batera jardun zuen lehenengo, eta Jose Agustín Yturriñorekin aurrerago. 1867an semearekin batera agertzen zaigu txistua jotzen, *se le señalan dos reales diarios por su hijo mayor que lleva el acompañamiento del silbo*. Zer ikusi, hura ikasi.

1879ko irailaren 28an, aguazil lana hobeto betetzeko, udalari eskatu zion 25 urteko Miguel semearen esku uzteko danbolina jotzeko ardura.

1880ko azaroaren 20an, osasunez makal zebilela-eta, udalekoei eskatu zien Miguel semea izendatu zezatela herriko aguazil eta danbolintero, *alguacil primero y tamborilero en propiedad*. Onartu egin zuten eskaera, baina baldintza batekin, danbolina jotzen zuen bitartean, beste pertsonaren bat jarri beharko zuen bere kontura herria behar bezain zainduta egon zedin, *para mantener el buen orden entre los concurrentes a la pública diversion en la plaza o en otro punto cualquiera*. Jaia bai, segurtasuna ere bai!

Handik hamar egunera hil zen Jose Sebastian, Miguel semeari lekukoa pasatu eta gero.

Josu Larrañaga Arrieta

Rafa Uranga Granado motor klasikoaren txapelketan

Zaletasuna abiadura bizian

11 urterekin aitaren Mobilette motorrarekin hasi zen Rafaren motor-zaletasuna. Aitari motorra "lapurtu" eta lehenengo ibilaldi haiek oso gogoan ditu, gainera. Beranduago, 15 urterekin karneta atera, 49 cc-ko motorra erosi, muntatzen, desmuntatzen ikasi... eta, karreratarako zirkuiturik ez zegoenez, Mutrikutik Zumaiara bitarteko 634 errepidea hartzen zuten probaleku. Ordutik hona, Rafaren bizitzan gauza asko etorri eta joan dira, baina batek irauten dio barru-barruan: abiadurako eta gasolina errearen usainarekiko grina.

Gaztetatik motorrak, gasolina eta abiadura gustuko izanda, 2001 eta 2005 urte bitartean kotxean jarrita ibili zen rally-en munduan, abiaduraz eta gasolina erretzeaz gozatzen orduan ere. 2006 urtetik 2015 urte bitarteko hamarkadan atsedena hartu zuen eta konpetizioa utzi baina afizioaz gozatzen jarraitu zuen, gurasoei lasaitasuna ekarrita. 2016 urtean, baina, barruko harra esnatu, eta berriz hasi zen azeleragailuari topera sakatzen. 1990 urteko Suzuki GSXR 1100 da Rafaren motorra, 120 zaldi potentzia eta 180 kiloko ibilgailua. 2013 urtean erosi zuen pasierak egiteko eta zirkuitoetan lagunekin ibiltzeko.



Noiz eta nola hasi zinen motor-karreretan?

Hasiera xelebrea izan nuen: 2015 urtean Iñigo Jubindo Bilboko lagunak Nafarroako Los Arcos zirkuitoan motor klasikoaren karrera batean parte hartzeko gonbidapena egin zidan, eta han abiatu nintzen, sekula ez eta zirkuitoan konpetitzera! Karreran hasi eta ondo sentitu nintzen; bat-batean, atzetik inor ez zetorrela konturatuta, pentsatu nuen erorketaren baten ondorioz jendea atzera geratu zela... Bai zera! Karrerako azkarrena neu, eta lasterketa irabazi! Aprobata egiteko zen egun hartan erakutsitakoa erakutsita, lasterketetan parte hartzeko erabakia hartu nuen. Ez zen erabaki zaila izan.

Karrera hartatik hona...

Hamar urte pasatu dira, urte ederrak, bizipen ederrak, une tristeak eta une alaiak tartean. Lehenengo karrera hartatik hona asko aldatu da karrera-mundua, eta neu ere egokitzen joan behar izan naiz. Bidean, Euskal Herriko 3 txapel lortu ditut 2016, 2018 eta 2024 urteetan, Ipar Eremuan (Euskal Autonomia Erkidea, Nafarroa eta Aragoi) 2016 urtean irabazi nuen txapelketa, eta urte berean Espainiako txapelketan bigarren postua lortu nuen. Hurbil ere ibili naiz bi urtetan: 2017 urtean, karrera baten faltan, entrenamenduan erori, eskafoidea hautsi eta ezin korritu azkena. 2019an, berriz, azken karrerako errekonozimendurako bueltan motorra part eta hantxe galdu txapela lortzeko aukera.

Ez da merkea izango kirol hau praktikatzeara...

Egia esan, ez da merkea, ez. Hasierako inbertsioa egin beharra... Urteko lizentzia eta karreratarako

inskripzioak... Karrera bakoitzerako gurpil-jokoa... Horri gehitu urtean zeharreko mantenu lanak, karreretako mekanikariaren lana eta izandako matxuren konponketak... Bai, diru asko sartu behar da kirol honetan. Eta horri gehitu behar zaio karreretako zirkuitoetara iristeko bidaia-gastuak eta asteburuak etxetik kanpo izanda jan eta lo egin beharra. Bakoitzak bere gustuko zaletasunean sartzen du dirua, eta guk, honetan.

Non egiten dituzue karrerak?

Etxetik hurbilena, Lizarra ondoko Los Arcos zirkuitoan, Nafarroan. Beste zirkuitoak urrutiago daude: Lleidan Alcaras eta Castellolí, Bartzelonan Montmeló, Valentzian Cheste, Madrilen Jarama... Kilometro asko eta asko egin behar haletara iristeko. Baina, badakizu: gustuko aldaipan... nekerik ez!

Zer da beharrezkoa motor karreretan parte hartzeko?

Motorra eta gasolina nahikoa dela iruditu daiteke, baina horiekin bakarrik jai dago, motor onena eta gasolina potenteena izanda ere. Taldea behar da, inguruko laguntza ezinbestekoa da. Nire kasuan, lehen meknikari lanak neronek egiten nituen, baina azken bi urteetan laguntza handia eman dit mekanikaria hartzeak: Motorra beti puntu-puntu eta konfidantza osoarekin, ni laskerketarako prest.

Ekonomikoki ere laguntasuna beharrezkoa da kirol honetan, eta oso eskertuta nago sponsor nagusi dudana Kide kooperatibari eta, berarekin batera, Grupo Seyprel, Zubiamar taberna, Eskuonak karrozeria, Behiarte, Silent-Bike, Iveco Auto-Iraeta, Dezaracing, enpresa txikiei,

APALLU
ITURGINTZA

Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustín, 3 - Mutriku

apallu@apallu.es

www.apallu.es

aparra
JANTZI DENDA

Erdiko kale 29 - 20830 Mutriku - Tel.: 943604594

beraien laguntasuna guztiz garrantzitsua delako niretzat.

Eta guztiaren aurretik, jakina, Nagore emaztearen laguntasuna, babesa eta burua, beroaldietan erabaki zuzenak hartzeko zentzua ematen didana.

Motor gainean neu bakarrik banoa ere, horiek guztiak nirekin batera datoz motor gainean.

Motorra bakarkako kirola da?

Esan bezala, motor gainean bakarra joan arren, atzean talde-lana dago. Eta konpetizioan ere bakarkako karrerak daude batetik, baina taldekako karrerak ere bai bestetik: Erresistentziako karrerak. Horietan ere hartzen dut parte, Bilboko Iñigo Jubindo lagunak, Tarragonako Xenia Rodriguez pilotuak eta hirurok taldea eginda.

Erresistentziako karreretan motorrak hiru eta lau ordu egin behar ditu pistan pilotuak txandakatuta, pilotu bakoitzak 50 minutu baino gehiago ezin duela korritu. Bakarkakoan norbera eta norbere burua gara. Taldekoan, berriz, hiru lagunen koordinazioa da nagusi... Ezberdinak, baina biak dira gozamenerako bidea.

Zer esan motorzalea den gazte bati?

Motorra gustatuz gero, aproba egiteko. Baina kontuz ibilita: Belozidadea gustatzen bazaizu, zirkuitora joan, ez egin karrerarik errepidean.

Ekainaren 29an izango du Rafak aurtengo lehenengo bakarkako lasterketa, Lleidako Alcarra zirkuitoan. Uztailaren 12an, berriz, taldekako bigarrena Lleidako Castellolí zirkuitoan. Ondo bihoakio denboraldia aurtengoan ere!



adats
ANDONILARREA



f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

Hondartza kalea 13 DEBA
Tel. 943 19 27 00

BOA VISTA UHARTEAN

ITSAS DORTOKAK ZAINTZEN

Afrikako kostaldetik 500 kilometrora Atlantikoan kokatzen den uharteetara egin zuen bidaia Nahia Teran Fernandez (2004) mutrikuarrak. Desagertzeko arriskuan dauden dortoken zainketa, ikerketa eta kontserbazio lanak burutu zituen Cabo Verdeko uhartean.

Afrikara joateko ideia nola sortu zitzaizun?

Lurreko ugaztunen espezialista ikasketak egiten ari nintzela bururatu zitzaidan erakunde baten parte hartzea. Bi urte luzeko ikasketak izan dira, eta aurtengo irailean egingo ditut praktikak, hain zuzen ere Cadizen, erreskatatutako animalien zentru batean. Eta, iaz ikasketak egiten ari nintzen bitarte horretan aukera suertatu zitzaidan dortoken zainketan aritzen diren erakundearekin harremanetan jarri eta boluntario lanak burutzeko. Abuztuaren 31n joan eta irailaren 23ra arte egon nintzen bertan. Egia esan, oso garbi nuen dortokekin lan egin nahi nuela eta aurrez dirua aurrezten hasi nintzen. Erakundeak *Cabo Verde Natura 2000* du izena eta irabazi asmorik gabeko erakunde caboberde-tarra da, Cabo Verdeko biodibertsitatea zaintzen aitzindaria, eta Boa Vista uharteko itsas dortokak babesten dituena. Etengabe ari dira lanean Boa Vista uharteko eremu babestuen biodibertsitate aberatsa zaintzeko eta balioztatzeko, eta tokiko komunitateen babesa eta parte-hartze aktiboa dute kontserbazio-jardueretan. Baliabide natural horiek kontserbatzea ez ezik, planetako txoko paregabe hau esploratzen duten bisitariak errespetatzea bultzatzen dute.

Zein helburu ditu horrelako erakunde batek, eta nola dago antolatuta?

Cabo Verdeko baliabide naturalak eta haien ingurunea zaintzea da lehentasuna. Kontuan izan behar dugu Cabo Verde artxipelagoan, gaur egun arte, munduan dauden zazpi itsas dortoka espezieetatik bost behatu direla. Ondorioz, izugarritzko garrantzia dauka zonalde horrek. Horrez gain, nazioarteko boluntario edo langileak itsas dortokei buruzko eta biodibertsitatearen inguruko prestaketa jasotzea eta horretan gaitzea da beraien nahia. Eta, ahalegin handia egiten dute hori guztia aurrera eramateko. Aldi berean sentsibilizazio kanpainak ere egiten dituzte kontser-

bazio-lanen arrakasta bermatu nahian. Eta, nola ez, ikerketarik gabe ez dago aurrerapenik, eta, hori dela eta, ikerketari denbora asko eskaintzen zaio.

Zein zen zuen eginkizuna bertan? Nolako zaintzak behar dituzte dortokek?

Hondartzetan egunero dortokek egiten zituzten mugimendu guztiak jasotzen genituen, habiak zituztenen eta ez zituztenen jarduerak kontabilizatuz. Datu horiei esker hondartzak bisitatzen zituzten dortoken dentsitatea eta habiak egiteko arrakasta ezagutzen genuen. Hori guztia esan beharra daukat gauez egiten genuela, dortokek gaueko iluntasunean erruten baitituzte arraultzak, eta, ondoren, berriro itsasora bueltatzen dira. Hiru txanda antolatzen genituen: bata, gaueko zortzietatik hamaiketara; bigarrena, goizeko hiruretatik bostetara; eta azkena, goizeko seiak artekoa. Lehen txanda horretan hondartzetan dortokak ezkutuan eramaten dituztenen presentzia kontrolatzen genuen, dortoka horiekin lege kanpoko salmentak egiten baitira. Horrez gain, turismoaren kaltea ere kontrolatzen ahalegintzen ginen, turistak argi zuriarekin joaten baitira hondartzetara, ohartu gabe zein kaltegarria den hori dortoken osasunerako. Guk, argi gorria erabiltzen genuen gauetan. Bestalde, gure zereginen artean datu biometrikoak hartzea, mikrotxip bidezko markaketaren bidez aleak identifikatzea, habiatik datuak hartzea eta banakoaren egoeraren azterketa orokorra egitea ere bazegoen. Eta, oso anekdota polita daukat kontatzeko: Horretan ari nintzela, orain dela berrogeita hamar urte txipa jarritako dortoka bat aurkitu genuen. Oso momentu hunkigarria izan zen. Lan horrek guztiak haien biologia eta ekologia hobeto ezagutzeko aukera ematen digu. Ale asko desorientatu egiten dira eta harkaitzetatik erori; horregatik, gure eginkizun garrantzitsua zen hondartza guztiak berrikustea galdutako dortoken bila, eta horiek itsasora arrakastaz itzultzen zirela zaintzea. Baina

ARRIETA
AUTOZERBITZUA



Aliprox

J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01



Camping 
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

kontuz egin beharreko lana da hori, dortoken horzkada ez baita txantxetakoa. Eta, hegatsetan dituzten azazkalekin ere kontuz ibili behar da. Horrela egin zidan dortoka batek zauria. Ondoren, higie falta dela-eta zauria gaiztotu egin zitzaidan eta hura gogoratzeko orbaina daukat orain hanketan.

Beraz, dortoken jarraipena eta zaintza ez da erraza...

Aipatutakoaz gain, habiak egiteko hondartzetako askotan ez dago habiak inkubatzeko baldintza egokirik: hondartze-tako malda txikiak, karramarro dentsitate handia eta landa-rediaren presentzia oztopo dira beraientzat. Alegia, faktore horiek habien inkubazio-arrakasta murrizten dute, eta, beraz, habietako asko inkubazio-gune kontrolatura eramaten dira, dortoken jaiotza bermatuz eta itsasora arrakastaz iristeko aukerak handituz. Kontuan izan behar dugu, baita, Boa Vistako hondartzetan eta kostaldean aurkitutako zabor gehiena itsaslasterrek, korronteek, eramaten dutela, eta horrek etengabeko lana bihurtzen du. Tarteka hondartzetan pilatzen zen zaborra jasotzen genuen, uharteko kostaldearen eta hondartzen osasungarritasuna bermatu ahal izateko.

Zaila egin zitzaizun bertako klimara eta baldintzetara egokitzea?

Bertako biztanleak oso atseginak eta irekiak dira. Eta, kanpamentura heldu orduko gustura sentiarazten zaituzte. Boluntario gehienak bertakoak ziren; asko, biologia ikasketak burutzen ari ziren gazteak. Eta, nahiz eta hizkuntzagatik, beraiena «kriolloa» baita, ezin elkar ulertu, komunikatzeko izugarrizko ahalegina egiten zuten, baita bestean hizkuntza ikasteko ere. Portugesa ere menperatzen zuten eta, gaztelaniaren antzekotasuna dela-eta, nahiko ondo moldatu ginen. Bertara heldu ginenean kanpamentuetara eraman gintuzten. Kanpamentuak nahiko sinpleak ziren: lau zutabe eta karpa bat. Denboraldia heltzen denean muntatzen dituzte, ezin baita babestutako gunean urte osoan mantendu. Horretarako baimen bereziak izaten dituzte. Dena egiten da dortoken arrautza errute-denboraren arabera. Kanpamentuan, urari dagokionez, gure higie pertsonalerako ur-putzuetatik hartzen genuen, ordea, kozinatzeko eta edateko ur-tanketatik hartzen genuen. Bestalde, gure elikaduraren oinarria arroza izaten zen bereziki, eta taldekideek arrantzatutako arraina ere jaten genuen. Komunera joateko ordua ere ez zen oso atsegin izaten, ez baikaude ohituta gure beharrak zulo batean egiten. Baina dena ikasten da. Askotan pentsatu izan dut hain gutxirekin bertakoak nola bizi diren hain alai eta irribarrets: gutxirekin zein zoriontsuak diren. Eta mugikorrik gabe egoteak ere badu horretan eragin positiboa. Kanpamentuetan ez genuen estaldurarik, ezta pantailarik ere. Horrela, denbora luze egiten zitzaizun,

minutuak gozatuz. Etxetik gehien faltan hartu nuena dutxa eder bat hartzea izan zen.

Zer egin dezakegu dortokei laguntzeko?

Ingurumen-sentsibilizazioa esango nuke oso garrantzi handiko alderdia dela, batez ere epe luzera natura kontserbatzeko lanen arrakasta bermatzeko. Haurrak, nerabeak, helduak... Denok gara arduradun, baita agintariak ere. Elkarte honek bereziki Estatu Batuetatik jasotzen zuen dirulaguntza, eta orain Trumpek egin dituen aldaketekin laguntzarik gabe gelditu dira. Bestalde, ezagutza handitzea eta hobetzea da, nire ustetan, biodibertsitatea kontserbatzeko tresnarik onena. Gure ibilbidean hainbat ikasketa, gradu amaierako lanak, master lanak eta doktorego tesiak egin dira. Eta horiek ere lagungarri dira ezagutza mundu osoan eta jendartearen zabaltzeko.



PRUSO
PODOLOGIA KLINIKA

943 01 49 05 - 747 43 48 52
Astillero Kalea 2 behe, Deba

ospakizunak, bazkariak, bataioak, eguneko menua...

SAN JUAN JATETXEA

Mutriku-Deba errepidea, Laranga auzoa
Tel.: 943603167 (jatetxekoa)

....ZORIONAGURRAK....



EKIA

Zorionak etxeko txori txikixenai!! Matxo handi bat etxekuen partez!!



ENAITZ

Zorionak ekainaren 27xan 17 urte beteko dezu ta! Segi horrela! Zorionak etxeko guztion partez, bereziki Eber, Ibai, Aner, Adei, Danel, Naiane. Aupa txapeldun!



SARA

Zorionak printzes!!! Pixkat atzeratuta... Ruben, Luken, Alen ta Izeban partez muxuak!



UXUE

Zorionak!! Handitzen handitzen... Ekainaren 7an 9 urte!! Muxu erraldoia etxeko danon partez.



SIMONE

Zorionak! Hilan 16xan zure urtebetetzia da ta... segi jatortasun ta alaitxasuna zabaltzen! Txokolatezko bost muxu erraldoi!



HODEI eta AIUR

Zoriooonak bikote! Urte berri zoragarri bat opa dizuegu. Sudurrean gorri, bihotzean irri... Matxo haundi bat etxeko danon partez!




DARINA

Zorionak printzesa zure 6. urtebetetzean! Zure irribarreak gure egunak alaitzen ditu! Zutaz harro gaude eta asko maite zaitugu. Zure familiak.



JEXUS

Zorionak lagun, ekainaren 12an 84 urte hartu duzlako!



NAHIA

9 urte dauaneko!! Matxo haundi bat familixa guztixan partez. Pillo bat maitxe zaitxugu!!



ENEKO

Uztaillaren 5a ospatzen hasi giñan ta... ez degu galduko ohituria, ez? Zorionak motel! Postria zeure kontu!



AMATXO

Zorionak!



KIMETZ eta AYELEN

Zorionak bikote! Beti bezalako alai eta langile jarraitu. San Blaseko merienda goxoaren zain gelditzen naiz bitartean. Matxo haundi bana.

ZORIONTZEKO eta ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

ansorregi oinetakoak #
aldizkaria@kalaputxi.eus #
whatsapp 635748393



ANSORREGI
oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com



Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

Orgazki Zaharrak



TXOLOTA, 1980ko hamarkada hasierako Kanpeonato Lokalian Ikastolako patioan

Tente: Luki Urkiri Illarramendi, Pello Belaustegi Arrieta, Xabi Momoitio Ansorregi, Jon Naberan Larrinaga, Imanol Andonegi Mendizabal, Guillermo Galparsoro Urreizti «Sastre», Ritxi Gorostiaga Semper eta Juan Elezgarai Urreisti«Karuso».

Kukulumutxu: Jose Angel Egaña Pagoaga «Maixa», Josetxo Mendizabal Olariaga «Moen», Jose Luis Zumalabe Andonegi, Patxi Uranga Elezgarai «Marrukax», Antxon Fernandez Arrieta, Joseba Nuñez Malave eta Manuel Villada Anabitarte.



FORZA BELTZA taldea Debako plaieroetan, 1988 urtean

Tente: Xabier Lizardi «Kanuto», Jose Luis Uranga «Marrukax», Juan Lucas Ageitos, Leonardo Zenekorta, Claudio Lopez, Gerardo Graña eta Mikel Landa «Kalamax».

Kukulumutxu: Antxon Ansorregi, Peio Galparsoro «Xaxtre», Xabier Ansorregi «Agerretxo», Aitor Lizardi «Kanuto» eta Juan Martin Urreizti.

EKAINA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
23 Zalduegi	24 Zalduegi	25 Zalduegi	26 Zalduegi	27 Burgoa	28 Burgoa (2)	29 Burgoa
30 Zalduegi						

UZTAILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

	1 Lasuen Elez	2 Lasuen Elez	3 Lasuen Elez	4 Lon Apraiz	5 Lon Apraiz	6 Lon Apraiz
7 Burgoa	8 Burgoa	9 Burgoa	10 Burgoa	11 Zalduegi	12 Zalduegi (1)	13 Zalduegi
14 Lon Apraiz	15 Lon Apraiz	16 Lon Apraiz	17 Lon Apraiz	18 Lasuen Ele	19 Lasuen Ele	20 Lasuen Ele
21 Zalduegi	22 Zalduegi	23 Zalduegi	24 Zalduegi	25 Burgoa	26 Burgoa (2)	27 Burgoa

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA

09:00 - 22:00
Larunbat goizetan 09:30-13:00
Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392
Lon Apraiz.....630 055 097
Hiart Burgoa (Deba)667 338 890
Amaia Zalduegi (Deba)... 669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA

22:00 - 09:00
Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30
Isasi 31, 20600 Eibar

EKAINA

21	Hirigibel		Madalen auzoko jaiak
23	Burumendin	21:30	Kalejira eta San Juan sua
28	Galdonan	18:00	Lur gaineko Sokatira Txapelketa
29	Moilan	Goizean	SAN PEDRO eguna

UZTAILA

5	Beheko plazan	Goizean	Merkatu txikia
	Goiko plazan	22:30	GURE AMETSA DANTZA TALDEAK 60 URTE Gure Ametsa Dantza taldea · Txistu taldea · Musika Banda Akordeoi taldea · Madalen abesbatza
11	Beheko plazan	Goizean	Merkatu txikia
	Goiko plazan	22:30	Anaiarte abesbatza
19	Goiko plazan	22:30	Kontzertua: Izaki Gardenak

MALEN JAIXAK

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela · Olatu planta ·
· Nautilus, Flyscheko fosilak · Arrietakua jauregia ·
Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

ODOLA EMATEA 2025

ekainak 20

· abuztuak 8 · urriak 17 · abenduak 19 ·
17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

 Gipuzkoako Odol Emaileak

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsapp 635748393
uztaileko aldizkarian
argitaratzeko
uztailaren 4rako
bidali zuen mezuak

MENDI-IRTEERAK 2025

Uztailak 6, 7 eta 8 Pirinioak

7 > Sallent – Musales – Ibon del Respumoso – La Sarra – Sallent
8 > Sallent – Pazino – Escarrilla.

Irailak 7 Bizkarreta – Urepel. Ezkabako ihesaren azken etapa (Burumendi)

Urriak 19 Arrankudiaga – Goikogane – Ganekogorta – Alonsotegi (Aurrera)

Urriak 26 Euskal Mendizale Federazioko XLIII. eta Gipuzkoako

Mendizale Federazioko XXXIX. Mendizale Helduentzako
Ibilaldia (Burumendi MT)

Azaroak 16 Samiño – Izazpi – Mandubia (Burdinkurutx MT)

Abenduak 14 Mutrikun. Urteko azken txangoa (Burumendi MT)



ZELAIETA JATETXEA
Olatz auzoa · Mutriku · 943604595
zabalik asteburuetan
eta jai egunetan



Euskal abizenak badituzu baina agiri ofizialetan erdal grafian idatzita baldin badaude, baduzu aldatzeko aukera. Oso erraza da egin beharrekoa, eta erroldatuta zauden herriko udaletxean edo Erregistro Zibilean egin dezakezu.

ABIZENA ERE EUSKARAZ

Abizenak euskalduntzeko kanpaina

BEHAR DIREN AGIRIAK

- Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Jaiotza ziurtagiria.
- Erregistro Zibilean zauden herriko udaletxean edo epaitegian eskatu behar da.
- Errolda agiria.
- Udaletxean eskatzen da. Baita online ere.
- Familia liburua.
- Seme-alabarik izanez gero edo ezkontuta egonez gero.

ALDATU ORAIN!

Zalantzak argitzeko
galdetu udalari euskaraz zerbizuan

Informazio gehiago
uema.eus

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



**KANTAURIKO
ANTXOAK ETA
BOKARTAK**



**HEGALUZZA
ETA
HEGALABURRA**



**ESKUZ
EGINDAKO
KROKETAK**



**BESTELAKO
GOURMET
PRODUKTUAK**



Zuzeneko salmentaren udako ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00-18:00 Larunbatetan: 10:00-14:00



Online salmenta: www.tiendayurrita.com



sarean edota dendan erosteagatik

%20ko deskontua

Zuzeneko salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan, abuztuaren 31ra arte erabilgarri (kupoi hau aurkeztuz)

Online salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan ondorengo kupoia sartuz: #UDA2025



(+34) 629 51 54 14



pedidos@yurritagroup.com



Casa Mauleon Etxea